

EDITORIALA

Kutxabank eta prekarizazioa

Kutxabank-ek erretiro aurreratuak aldekarreko erabakiz ezarri nahi ditu. Zoritxarrez, hau da errealitatea: Kutxabankek ez du negoziatu nahi; bere jarrera inposizioa da. Horretarako estrategia honakoa izan da: urtarrilean lan-hitzarmenerako plataforma onartezin bat mahairatu eta ondoren esan zuten negoziazioa luzatu egingo zela agerikoa zenez, erretiro aurreratuak (308 langileri eragingo zietenak) hortik atera egingo zituztela, aldekarreko prozesu baten bidez gauzatzeko. Iragarri zuten ere aurreko aldi bako bako baldintza okerragoak aplikatuko zituztela oraingoan.

Zinismo handiz, Kutxabankek ordezkariak esan dute erretiro aurreratuak, kontratazioa bezalaxe, plantillari egindako kontzesioak direla, kostu ekonomikoa dutelako. Baina baldintzak gero eta gehiago okertzeko joera hau ez da soilik erretiroekin gertatzen; Lan-Akordio eta -Hitzarmenak ere gero eta okerragoak dira; lan-harremanen eredu honen oinarria inposizio hutsa da.

Erretiro aurreratu prozesu honekin, fusioa egin zenetik 1.800 lanpostu suntsituko dituzte bankuan; aitzitik, kontratu mugagabea 43 langileri baino ez zaio egin. Beraz, Kutxabankek gure gazteei lan etorkizun latza eskaintzen die: prekarizazioa.

Salatu egin beharra daukagu Kutxabankek erabakitako dinamika hau: langileen baldintza eta eskubideak mozten ari da. Gainera, erakundeak kontratatzerakoan lege-iruzurra egiten du, beharrian iraunkorreko egiturazko postuak enplegu prekarioz osatzen dituelako; horrela gure gazteei enpleguan behar duen egonkortasuna izateko aukera galarazten die.

**1.200
EUROTIK
GORRA**

El 35,79% de representatividad en Hego Euskal Herria demuestra claramente el apoyo de la clase trabajadora al modelo sindical de ELA

ELA CONSOLIDADA Y AMPLÍA SU MAYORÍA

Cerrados los datos oficiales de elecciones sindicales a diciembre de 2016, ELA ha consolidado su liderazgo en Hego Euskal Herria, con el 35,79% de representación. Esta cifra es superior a la suma de los dos sindicatos de ámbito estatal, CCOO y UGT (34,69%).

En la CAPV, ELA ha obtenido una representación del 40,25%, con una subida de 0,19 puntos. En este ámbito, es el sindicato que más sube en este período. La suma de la representación de ELA y LAB alcanza su máximo histórico (59,25%), frente a la suma de CCOO y UGT (29,66%). Supone una diferencia de 29,59 puntos. Por territorios, ELA ha obtenido el 43,74% de los delegados/as en Gipuzkoa; el 39,73%, en Bizkaia, y el 35,25%, en Araba.

MÁXIMO HISTÓRICO EN NAVARRA

En Navarra ELA ha alcanzado en 2016 su máxima representación histórica, con un 22,74%, habiendo tenido un incremento del 0,86% de representación. En este territorio, por primera vez la suma de UGT y CCOO queda por debajo del 50% (49,42%), y la suma de ELA y LAB representa un 37,92%. El incremento conjunto de ELA y LAB ha sido de 1,29 puntos. Estos resultados tienen el valor añadido de que se producen en una comunidad en la que durante muchos años los poderes políticos y económicos han trabajado en contra del sindicalismo abertzale, tanto por su idea de sociedad como de país.

Sin embargo, paso a paso y fiel a su modelo sindical, ELA se ha situado a dos puntos y medio de UGT y a uno y medio de CCOO. En 2017, ELA aspira a consolidar esta tendencia ascendente y a seguir acortando sustancialmente la distancia respecto a los sindicatos estatales.

MEJORAR EN ORGANIZACIÓN

Leire Txakartegi, responsable de elecciones sindicales, muestra su satisfacción por unos resultados "que muestran la confianza de las trabajadoras y trabajadores en el modelo sindical de contrapoder que representa ELA. Un modelo autónomo, tanto en lo finan-

AUTONOMIA EKONOMIKOA SINDIKALA POLITIKOA
Hauteskunde Sindikalak
2016/12/31 Eraitzak

Sindikatuak	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		C.A.P.V./E.A.E.		Nafarroa		Euskal Herria	
	Delegado/as Ordezkariek	%	Delegado/as Ordezkariek	%	Delegado/as Ordezkariek	%	Delegado/as Ordezkariek	%	Delegado/as Ordezkariek	%	Delegado/as Ordezkariek	%
ELA EUSKAL SINDIKATUA	1.089	35,25%	3.445	39,73%	2.498	43,74%	7.032	40,25%	1.359	22,74%	8.391	35,79%
LAB	408	13,21%	1.307	15,07%	1.604	28,09%	3.319	19,00%	907	15,18%	4.226	18,02%
CCOO	576	18,65%	1.919	22,13%	791	13,85%	3.286	18,81%	1.425	23,85%	4.711	20,09%
UGT	531	17,19%	1.030	11,88%	335	5,87%	1.896	10,85%	1.528	25,57%	3.424	14,60%
Otros y No Sindicados Besteak/Ez Sind.	485	15,70%	971	11,20%	483	8,46%	1.939	11,10%	756	12,65%	2.695	11,49%
TOTAL GUZTIRA	3.089		8.672		5.711		17.472		5.975		23.447	

ciero como en lo político, y cercano a las necesidades y expectativas de las trabajadoras y trabajadores".

En este sentido, Txakartegi remarca el hecho de que "queda claro que la mayoría de la clase trabajadora de nuestro país apuesta por un modelo sindical reivindicativo y propio, alejado del modelo de concertación social". En línea con esto, da enorme valor a que ELA siga subiendo representatividad en la CAPV en un contexto de crisis, precariedad y de bloqueo de la negociación colectiva. "Pese a la campaña del poder político, económico y mediático contra nuestro sindicato, la clase trabajadora valora la posición de ELA de no dar legitimidad ni cobertura a los recorres laborales y sociales, en general".

Txakartegi, tras felicitar a los delegados, delegadas y militantes del sindicato en las empresas, "los verdaderos artífices de estos buenos resultados", reafirma el compromiso de ELA en

defensa de los intereses de la clase trabajadora. "El reto es seguir mejorando en organización para que el sindicato sea instrumento de cambio y podamos responder con garantías de éxito a los problemas que se le plantean a la clase trabajadora en un contexto de pérdida generalizada de derechos. La precariedad afecta de forma especial a las mujeres. Trabajamos para ser un instrumento eficaz en defensa de los derechos de las mujeres. ELA no se lo va a poner fácil al poder político y económico. Nuestra mayoría va a estar siempre al servicio de las y los más débiles".



ELA: EL SINDICATO QUE MÁS SUBE. COMPARATIVA 2016-2015

	CAPV	NAVARRA	HEH
ELA	40,25% (+0,19)	22,74% (+0,86)	35,79% (+0,44)
LAB	19,00% (+0,02)	15,18% (+0,43)	18,02% (+0,14)
CCOO	18,81% (-0,23)	23,85% (-0,35)	20,09% (-0,26)
UGT	10,85% (-0,03)	25,57% (-0,64)	14,60% (-0,25)
BESTEAK	11,10% (-0,06)	12,65% (-0,40)	11,49% (-0,07)

ELAk lehen 271 erreklamazio aurkeztu dizkio Eusko Jaurlaritzari irakaskuntzan Europako epaiak betetzea eskatuz

“NEGOZIATZERIK NAHI EZ DUTENEZ, EZ DIGUTE EPAITEGIETARA JOTZEA BESTE BIDERIK UTZI”



Irudian ELAk irakaskuntzan dituen arduradunak otsailaren 20an Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzaren aurrean, Europako epaiak betetzea eskatzeko aurkeztutako erreklamazioekin.

2016ko irailean Europako epaitegiek agerian utzi zuten ELAk behin eta berriz salatu izan duena: Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-eredua bidegabea eta iruzurrean oinarritua izan da urte luzez. Europako Auzitegiak adierazi zuenez beharizan iraunkorrak betetzeko behin-behineko kontratazioaz baliatzea zigortu behar da, eta eraginpeko langilea babestu; gainera behin-behineko langileei eta langile finkoei kontratuaren amaieran kalte-ordain desberdinak ematea diskriminaziozkoa dela ebatzi zuen.

Egoera hau konpondu asmoz ELAk behin eta berriro eskatu dio Eusko Jaurlaritzari iruzurrezko jarduera honekin amaitu eta prekaritate egoera honi irtenbidea emateko, behin-behinekoak diren milaka lanpostu eta langile hauei behin-betiko egonkortasuna eskainiz. Zoritxarrez, ELAk irakaskuntzan duen arduradun Xabi Irastorzak salatzen duenez, Eusko Jaurlaritzak gure sindikatuaren eskaerei eta Europako sententzien harira eskatutako neurriei muzin egiten diela ikusirik, mobilizazioez gain bide judizialera jo beste aukerarik ez digute utzi.

“Egoera honi aurre egin eta buelta eman asmoz duela hiru hilabete abiaturiko kanpainaren bidez lehen 271 erreklamazioak erregistratu berri Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailean. Lan-baldintzei eta hezkuntza sistemaren egonkortasunari eragiten dion egoera honi konponbidea eman asmoz negoziatorako eta akordiorako borondatea berretsi nahi dugu beste behin, baina Eusko Jaurlaritzak orain arteko jarrera mantentzen duen heinean mobilizazioa eta bide judiziala beste biderik ez digu uzten”.

Irastorzak salatzen duenez, irakaskuntza publikoaren egoera oso larria da Euskal Autonomia Erkidegoan. “Urteak daramazkigu prekaritatea eta behin-behinekotasuna salatzen. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza publikoan ia 10.000 langile daude, eta horietatik %39ak behin-behineko kontratua du. Lanpostu horietatik 6.000tik gora urtero ikasturte hasieran betetzen diren egiturazko lanpostu-hutsak dira. Honek agerian uzten du Eusko Jaurlaritzaren urteetako arduragabekeria eta iruzurrezko jokabidea. Are nabariago Europako sententzien argitan”.

“Behin-behinekotasun honek –jarraitzen du Irastorzak– eta iruzurrezko jarduera honek langileak diziplinatze eta murrizketak egiteko edota plantilak bere gisara moldatzeko aukera ematen dio kaleratze edo Enplegu-Erregulaziorako Espediente formalen beharrik gabe. Gogoan izan behar dugu, 2009tik Hezkuntza Sailak 2.000 lanpostu inguru *aurreztu* dituela gelako ikasle kopurua %10 handituz”.

ELA registró el 20 de febrero ante el Gobierno Vasco las primeras 271 reclamaciones en educación exigiendo el cumplimiento de las sentencias europeas.

Viendo que el Gobierno Vasco hace caso omiso a las exigencias de ELA y a las medidas solicitadas a raíz de las sentencias europeas, además de las movilizaciones, el sindicato ha optado por la vía judicial

45.000 EVENTUALES EN LAS ADMINISTRACIONES ¡STOP A LA PRECARIEDAD!

Actualmente hay 45.000 trabajadores y trabajadoras temporales en todo el sector público de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El 35% de los empleados del ámbito local y foral, Osakidetza, irakaskuntza, autónoma, justicia, empresas públicas... son temporales, superándose en el sector público la tasa de temporalidad existente en el sector privado.

Esta cifra solo se explica por la existencia de una decisión política de nuestras instituciones que, lideradas por el Gobierno Vasco, han apostado de manera estratégica por la precariedad en el empleo público, cubriendo con empleo temporal necesidades estructurales del sector público. Desde 2010 la coartada ha sido la legislación básica del Estado, pero la deriva es previa y responde a una decisión política. Solo así se puede entender una tasa de temporalidad del 35%.

La utilización del empleo temporal ha sido y es un instrumento muy útil para destruir empleo público y privatizarlo, como demuestra que en los últimos años se han destruido más de 21.400 empleos públicos en la CAPV. La contratación temporal en el sector público es, además, una herramienta de disciplina muy eficaz, que se ha utilizado, hasta ahora, de forma abusiva utilizando contratos temporales y nombramientos interinos para cubrir puestos de trabajo claramente estructurales, sin que este abuso tuviera consecuencia alguna para las administraciones.

Decimos hasta ahora porque las Sentencias Europeas han venido a establecer límites a la contratación temporal abusiva en las administraciones públicas, por entender que se ha estado vulnerando la normativa comunitaria. Estas Sentencias deben suponer el acicate necesario para modificar de raíz la actual forma de contratación que rige los distintos sectores de las administraciones de la CAPV, cuya modificación debe de llevarnos a crear y consolidar más de 35.000 empleos de calidad y estables en el ámbito público, que repercutiría también en la mejora de la calidad de los servicios públicos vascos. Sin embargo, el Gobierno vasco, no ha mostrado ninguna intención de abordar este tema. ¿Le parece bien el nivel de temporalidad existente en las instituciones de la CAPV? ¿El Gobierno Vasco va hacer caso omiso a las sentencias europeas?

El Gobierno vasco es el primer responsable de las abusivas e irregulares políticas de contratación temporal que se han venido aplicando durante años en el sector público vasco. Ante una oportunidad como la actual en la que los Tribunales Europeos brindan la posibilidad de modificar estas políticas, exigimos voluntad política para generar un modelo de contratación basado en la estabilidad y la dignidad.



KALTEORDAINA ESKATU, EXIJITU ZURE EGONKORTASUNA

BEHIN-BEHINE TEMPORALIDAD

RECLAMA TU INDEMNIZACIÓN, ¡EXIGE ESTABILIDAD!

#PrekarietateariSTOP **ELA**
EUSKAL SINDIKATUA

PROPAGANDAREN PROPAGANDA



Aldi baterako lan-poltsak zabaltzeko deia egin du Eusko Jaurlaritzak berriz ere. Funtzio Publikoko Sailburuorde Andres Zearretak adierazi duenez, "lan-poltsen deialdi hau, Eusko Jaurlaritzak enplegu publikoarekin duen konpromisotik sortu da... Eusko Jaurlaritzak lan-aukerak eskaini nahi dizkie gazteei, eta, aldi berean, Euskadiko herri-administrazioko langileen batez besteko adina gaztetu nahi du... Hori da 2017 honetan Eusko Jaurlaritzak egingo duen Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoaren helburuetako bat... deialdi honi esker, arinago eta eraginkortasun handiagoz egin ahal izango dira Euskadiko Administrazio Orokorreko ordezkapenak eta, gainera, izangaien publizitate, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatuko dira".

Hitz hanpatu horien itzulpena egin beharra dagoela uste dugu.

Hitz hanpatu horien itzulpena egin beharra dagoela uste dugu.

Eusko Jaurlaritzak enplegu publikoarekin duen konpromisoaz hainbat datu:

- Azken urteotan 21.000 lanpostu suntsitu dira EAeko Administrazio publikoan.
- Hiru lanpostutik bat aldi baterako da EAeko Administrazioan, EZ-egonkortasuna sustatuz.
- Ganorazko oposizioarik deitu gabe daramatzagu hamabost urte inguru.
- Jaurlaritzak EZ ditu hartutako konpromisoak betetzen. 2010ean sindikatuokin adostutako lan hitzarmeneko atalik garrantzitsuenak sistematikoki bete gabe daude.
- Jaurlaritzak da langileak okerren tratatzen dituen administrazio publikoa, besteak beste, murrizketak atzera botatzen azken administrazioa izaten ari da esaterako (pentsio planetara ekarpenak, 2012ko abenduko apartekoa, baja osagarriak...).

Eusko Jaurlaritzak gazteei eskaini nahi dizkien lan aukerak direla eta:

- Aldi baterako lanpostuak eskaintzen dizkie Jaurlaritzak gazteei, gaixotasun bajak, amatasun bajak, eszedentziak, eta kasurik onenean, jubilatzeak betetzeak. Oposizioak deitu eta lanpostu finkoak eskaini baino, nahiago dute lanpostu prekarioak eskaini, sustatu eta kronifikatu.

- Administrazioa gaztetuko da ezinbestean, langileen batz besteko adina altua baita, eta jubilatzen diren heinean lan-poltsetako gazte prekarioez beteko baitutu Jaurlaritzak hutsune hauek.

PLAN ESTRATEGIKOEKIN ESTALI OHI DU JAURLARITZAK EKIMENIK EZA

Euskara Normalizatzeko Plana edo Berdintasun plana dira esandakoaren adibide argiak. Propaganda egiteko eta ezereza estaltzeko erabili ohi dira planen iragarpenak Jaurlaritzan. Sarri, ez ekimen zehatzik, ez baliabiderik, ez arduradun jakinik izaten ez duten planak baitira. Oraingoan ere, idatzi gabe dagoen balizko plan estratagiko batekin lotu dute lan-poltsen deialdi hau, deialdia egiteko arrazoi bakarra, indarrean dauden poltsak agortuta daudela delarik.

"PUBLIZITATE, BERDINTASUN, MERITU ETA GAITASUN" PRINTZPIOAK EUSKO JAURLARITZAN

Publizitatea bai. Hainbestekoa ze, jende askok oposizio deialdi bat dela ulertu baitu.

Berdintasuna? Batetik, jende askok gorriak igaroko ditu ikasgaiak eskuratzeko, Jaurlaritzak ez baititu eskueran jartzen. Gaiak eskuratzeko aukerak ezarriko dituzte lehen aldeak izangaien artean. Bestetik, hainbat erreklamazio, helegite eta eskaera izan dira beharrezko presaka eta propaganda hutsera begira egindako deialdiaren akatsak zuzentzeko: hasierako deialdian ontzat ematen ez ziren zenbait gradu-ikasketa onartu eta eskaerak egiteko epea luzatu behar izan du Jaurlaritzak zenbait lan-poltsetan.

Euskaldunak ez gara *hain berdinak*. Ikasgai batzuk euskarara itzulita badaude, beste asko españolez baizik ez daude. Gero, jendeak ez dituela azterketak euskaraz egiten esango dute.

Meritua baino ez da euskararen ezagutza lan-poltsarik garrantzitsuenetan (abokatu, mediku, goi-mailako teknikari eta lan aholkulari). Aldiz, espainiera guztietan da ezinbestekoa, inon aipatzen ez bada ere... aipatu beharrik ez dagoelako.

Gaitasuna? Ikasgaiak eskura dauzkanak *gaitasun* handiagoa erakutsi ahalko du, oraindik eskura ez dauzkanak baino. Bestalde, ikasketak españolez burutu dituenak, *gaitasun* handiagoa erakutsi ahal izango du euskaraz ikasi duenak baino, ikasgai gehienak españolez baizik ez daudelako eskuragarri.

Eusko Jaurlaritzak, lehengo lepotik burua, (guri ordainarazitako) propagandak propaganda.

Miren Zubizarreta Juaristi,
EAeko administrazio orokorreko ELAren arduraduna

LABURREAN / BREVES



● Huelga y movilización en el polideportivo de Zarautz

Las plantillas de BPXport y Balea Igeriketa –subcontratas encargadas de la gestión del polideportivo de Zarautz– continúan en lucha para lograr un convenio digno y que el Ayuntamiento haga referencia del convenio en los pliegos de condiciones. La plantilla denuncia que pese a los reiterados llamamientos el Ayuntamiento no ha querido reunirse, cerrando las puertas a poder llegar a cualquier acuerdo.

Ante esta circunstancia las y los trabajadores han comenzado un ciclo de movilización, incluidos tres días de huelga. En caso de que el Ayuntamiento siga con su actitud la plantilla seguirá con las movilizaciones en defensa de un convenio justo.

● Tres días de huelga en los supermercados Caprabo de Navarra

La plantilla de Caprabo secundó los paros convocados para los días 23, 24 y 25 de febrero en protesta por el despido de 18 trabajadores y trabajadoras en cuatro supermercados de esta cadena en Iruñea. El anuncio de los despidos fue realizado por la dirección sin ningún contacto previo con los sindicatos. La cadena Caprabo fue adquirida por Eroski en 2007.



● Dagoeneko 10 dira 2017an lanean hil diren lagunak

Otsailaren 20an Insausti Garraioak enpresako langile bat hil zen lan-ezbehar baten ondorioz. Hildako langileak 58 urte zituen eta Insausti Garraio enpresak

azpikontrataturakoa zen. Lanean izandako heriotza berri hau salatzeko ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek bilkura egin zuten otsailaren 22an. Dagoeneko 10 dira urtea hasi zenetik Hego Euskal Herrian lanean hildako langileak.

● Mobilizazioak Osakidetza pribatizazioen aurka

Osakidetza ordezkaritza duten ELA, SATSE, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek mobilizazioak egin zituzten otsailaren 21ean Osakidetza pribatizazio politika salatzeko. Pribatizazioaren aldeko politika horrek 350 milioi euroko gastua dakarkio urtero Osakidetza. Eta diru-kopuru hori handituz joango da pribatizazio berri bakoitzarekin.

ELAk salatzen duenez pribatizazio gehiagoren mehatxuaren aurrean gaude. Zehazkiago esateko, Osakidetza pribatizazio berri hauek azaldu ditu: Urduluzko Ospitaleko lantzeria eta sukaldaritza, Lezako Ospitaleko garbikuntza-zerbitzua, informatika-zerbitzua kanpora ateratzea edo Eibarko Ospitalea ireki orduko zenbait zerbitzu kudeaketa pribatuaren esku uztea, besteak beste, errehabilitazioarena.



Las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia seguirán en lucha para lograr la mejora de las condiciones laborales y la calidad asistencial en las Residencias de Bizkaia

“EL 8 DE MARZO COMENZAREMOS UNA NUEVA HUELGA DE CUATRO SEMANAS”



El 28 de febrero finalizó una nueva tanda de huelgas y movilizaciones en las Residencias de Bizkaia sin que, desgraciadamente, se haya logrado solucionar este conflicto laboral. Tanto las patronales del sector –GESCA, LARES, ELBE– como la Diputación Foral de Bizkaia –no olvidemos que este es un servicio público privatizado, financiado en un 70% por la Diputación– continúan sin tener ninguna voluntad para lograr un acuerdo justo.

Ante esta situación el viernes 24 de febrero las delegadas de ELA en el sector se reunieron en asamblea para analizar la situación y determinar los pasos a dar en las próximas semanas. Soraya García y Gaizka Miguel, responsables de ELA en las Residencias de Bizkaia, destacan que “las trabajadoras que estamos en huelga lo tenemos claro: no vamos a parar hasta lograr nuestras reivindicaciones”.

En este sentido destacan que la totalidad de las delegadas reunidas decidieron seguir con la dinámica de lucha y movilización. “Hemos decidido dar continuidad a la huelga desde el próximo 8 de marzo. Por eso, nada más finalizar la asamblea comunicamos en la Delegación de Trabajo del Gobierno Vasco una nueva convocatoria de huelga de una duración de 4 semanas”.

La fecha elegida para la nueva tanda de huelgas y movilizaciones no es casual. “Hemos querido que el primer día de esta nueva convocatoria sea el 8 de Marzo, Día Internacional de las Mujeres. Consideramos que si hasta la fecha este conflicto laboral y social no se ha solucionado es, lisa y llanamente, por-

que somos mujeres. La discriminación que sufrimos las mujeres no solo se da en el día a día en las condiciones laborales y en otros muchos aspectos, sino también en la duración y sufrimiento del conflicto”.

Esta es la primera vez que se llama a una nueva huelga sin finalizar la actual convocatoria. “El motivo es nuestro hartazgo ante el inmovilismo de una patronal muy cómoda y una Diputación Foral de Bizkaia que sigue mostrando una total connivencia con las patronales. A día de hoy, de manera absolutamente incomprensible, sigue regalando dinero a las empresas del sector por un servicio que no prestan durante la huelga. Nuestra estimación, cuando ya hemos pasado los cien días de huelga, es que el beneficio empresarial por un servicio que no ofrecen supera los 4 millones de euros”.

108 DÍAS DE HUELGA Y UN AÑO DE LUCHA

El 17 de marzo se cumplirá un año desde el primer día de huelga de las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia; desde ese día y hasta el 28 de febrero han sido un total de 108 jornadas de huelga. Soraya García y Gaizka Miguel destacan que durante todo este tiempo el apoyo a las trabajadoras en lucha ha ido creciendo.

“Desde la primera convocatoria de huelga el apoyo a nuestra lucha ha ido creciendo, tanto si hablamos de los centros como de las trabajadoras que se han sumado a la lucha. Nuestra determinación es firme y no vamos a parar hasta lograr nuestro objetivo: lograr la mejora de las condiciones laborales y de la calidad asistencial en las Residencias de Bizkaia”.



FURGONETA IBILTARIA

Bizkaiko Erresidentzietako langileek hilabete osoko greba eta mobilizazio txanda egin dute otsailean. Denbora honetan hamaika ekimen egin dituzte euren borroka lau haizetara zabaltzeko: manifestazioak, bilkurak, propaganda banaketa, asanbladak... baina, zalantzarik gabe, hilabete honetan mobilizazioetako protagonista nagusia *furgoneta ibiltaria* izan da.

Gutxi izango dira, baten bat baldin badago, azken asteotan furgoneta honek zeharkatu gabe utzi duen Bizkaiko txokak. Gau eta egun delegatu talde batek makina bat kilometro egin ditu lan eta bizi baldintza duinen alde. Delegatu hauek makina bat orduz aritu dira Bizkaia osoa zeharkatzen, baina argi dute esfortzuak merezi izan duela. Izan ere, lehen eskutik jaso izan ahal dute herritar asko eta askoren babesa.

Greba eta mobilizazio txanda honen ostean martxoaren 8an –lehenago akordiorik ez badago, noski– beste deialdi bat dago iragarrita. Orduan ere aukera izango dugu elkartasunaren furgoneta ibiltaria ikusi eta entzuteko. Otsailean ohikoa egin da Bizkaian kaletik joan eta bat-batean, gutxien espero duzun unean, “ERRESIDENTZIAK BORROKAN” leloa ozen entzutea. Bai, duintasunaren furgoneta zen.

www.ela.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA EUSKAL SINDIKATUA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao

Tel. 94 403 77 00

Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

**Franqueo concertado
nº 08/207**